

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko apirilaren 5a. IX. urtea. 2.388. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



I. TERRADILLOS

→ **Alurren lan berria, estreinatzeko prest.** Ibarako Alurr dantza taldeak *Izanak dirau*, 1512 ikuskizuna osatu du eta lehen emanaldia Lasarten egingo du, apirilaren 14an. Lan berria dantza eskolako kideak dira protagonista eta, Nafarroa ardatz hartuta, Euskal Herriko historiaren zati bat irudikatuko dute dantzaren bidez. **6**

## TOPAK «alderdi anitzen mahaia» eskatu du Asuncion klinikaren publifikaziorako

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataforma mozioak aurkezten ari da eskualdeko udalerrietan; Tolosako osoko bilkuran onartu berri da **3**

## Merkataritza eta ostalaritza aztertzeko, inkestak egingo dituzte

Zerbitzuen sektoreak Ibarren duen egoeraren berri izan nahi dute udalak, merkataritza elkarteak eta Tolosaldea Garatzenek **6**

### Aranburu eta Amonarriz Espainiako txapelketan lehiatuko dira

Halterofiliako Danok Danenako pultsulariek Euskal Herriko Teknika Txapelketa irabazi dute **7**

### Gizartearen ongizatea lortze aldera, iraunkortasuna «oinarrizko»

Tolosaldeko Iraunkortasunerako Udalen Foroak bilera egin berri du Amezketan **2**

### Kultur ekitaldiz beteriko apirila, Villabonan **4**

#### Oharra

Aste Santuko oporrak direla eta, HITZA berriro datorren asteazkenean, apirilak 11, argitaratuko da.

DAGOENENKO 56.000 LAGUN ALDATU DIRA BIZITZAREN ALDE SIMPLE-RA. ETA ZU?

TELEFONIA MUGIKORRA ALDATU EGIN DA **SIMple**

5 ZENT. HOI ZAHARRI NORMAARRIEN BETA

logika line

euskaltel

Batasuneko ofiziala

# Iraunkortasuna oinarrizko estrategiatzat dute eskualdeko alkateek



Bileran parte hartu zuten eskualdeko kideak Amezketan elkartu ziren. HITZA

Amezketan bildu dira eskualdeko alkate nahiz udal ordezkariak, Tolosaldea Garatzenek antolatutako foroan

## I. Urkizu

Tolosaldeko Iraunkortasunerako Udalen Foroko kideak, pasa den martxoaren 27an bildu ziren Amezketako kultur etxean, «eskualdearen eraikitze iraunkorren inguruan jarduteko». Tolosaldea Garatzenek antolatutako saio honetan, Tolosaldeko hainbat herrietako alkate, zinegotzi eta udal teknikariek gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak ere parte hartu zuten.

Azken urteotan *iraunkortasun* hitzak izan duen erabilera, garapen iraunkorrari «zentzu desberdina» eman diola azaldu du Tolosaldea Garatzenek; dena den, pasa den asteko udalen arteko fo-

roan parte hartu zuten udal ordezkariak, argi utzi nahi izan zuten garapen eredu horrek oinarritzko estrategia izan behar duela hainbat esparruren inguruan, gizartearen ongizatea lortze aldera.

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, beren aldetik, iraunkortasunaren bilakaeraren lurraldeko ikuspegia eskaini zieten bertaratuei, besteak beste, horretara bideratutako Tokiko Agenda 21 udal strategiaren garapena azalduz.

Azalpenez gain, herri bakoitzeko esperientziak ere lekua izan zuten Amezketako bileran. Villabona eta Adunako alkateek, orain artean beren udalerrietan iraunkortasunaren emandako pausoak azaldu zuten alde batek; era berean, epe laburrean martxan jarriko duten iraunkortasun estrategia nola osatu duten azaldu zieten gainontzekoei, prozesu horretako aro bakoitzean, herritarren parte hartzearen garrantzia nabarmenduz.

Saioaren azken zatian, etorkizuneko Tolosaldea modu iraunkorrean eraikitze beharrezko lan esparruak zehaztea eskatu zieten parte hartzaileei. Hausnarketa honetan, udal guztiak azpimarratu zuten, lan bateratua egiteko beharrene garrantzia; udal agintarien inplikazioarekin ekin beharreko bidea dela ere nabarmendu zuten. Era berean, gaia azpibailaran lantzea ere ezinbestekoa zela ondorioztatu zuten bertaratuek. Izan ere, ingurumena, hezkuntza nahiz etxebizitza bezalako zeharkako hainbat gai hipzide izan ziren arren, esparru horietako zenbaitek, azpibailaretarako aparteko garapena behar dutela ondorioztatu zuten.

Bilera amaieran, Tolosaldea Garatzeneko ordezkariak eskualdean dagoeneko iraunkortasuna helburu duten zenbait urrats eman dituztela gogora ekarri zuten, besteak beste, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea.

• [tolosaldea@hitza.info](mailto:tolosaldea@hitza.info)

# «Demokrazia inperfektuz» aritu dira Leidorren

Tolosaldean Ikastn-eko antolatzaileek «arrakastatsutzat» jo dute pasa den asteko mahai ingurua

## I. Urkizu Tolosa

Pasa den martxoaren 29an Leidorren egindako *Euskal Herria gaur eta bihar* mahai inguruan, «demokrazia inperfektuan bizitzen» ikasi behar dela nabarmendu zuten hizlariak. Mahai ingurua «arrakastatsua» izan zela azaldu dute Tolosaldean Ikastn-eko antolatzaileek.

Jaime Otamendi gidari zutela, Xabier Aierdi, Jose Luis Elorza, Mariano Ferrer, Maite Iturre eta Martxelo Otamendi aritu ziren hizlari lanetan, 130 ikusleren aurrean. Mahaingurua «bizia eta erakargarria» izan zela nabarmendu dute antolatzaileek. Euskal Herriak bizi duen momentua

ulertzeko gakoak eskaini zituzten abiapuntu gisa, eta hizlari bakoitzak bere esparruari begirako azalpenak eman zituen, ondoren eztabaida sortuz.

19:30etik 21:00era bitarte, azken hilabeteotan Euskal Herrian gertatutako berririk esanguratsuenak hizpide izan zituzten. Horrela beraz, pasa den urriaren 20an ETA armak uzteko erabakia jakinarazi izana mahai inguruko gai nabarmena izan zen.

Era berean, egungo krisiaz ere aritu ziren, eta honakoak izan ziren ateratako ondorioak: «Politikak ez du nagusitzen jakin, makurtu egin da eta gurtu egin du ekonomia eredu hori, izateko arrazoiak ahaztu eta gutxi bazu zuten zerbitzura jarri da. Gero eta zailagoa da politika eta ekonomiarren arteko muga bereiztea».

Tolosaldean Ikastn-eko antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkio hizlariari eta herritarrei, mahai inguruan parte hartzeagatik.



Mahai ingurua Leidor aretoan izan zen. HITZA

# Eskualdeko aizkolariak, Eusko Label txapelketan

Datorren igandean Urrestilako Txikuri pilotalekuan ariko dira banakako Eusko Label txapelketan

## I. Urkizu

Datorren igandean, apirilak 8, Banakako Eusko Label Aizkora Txapelketa izango da Urrestilan (Azpeitia, Gipuzkoa), eta eskualdeko hainbat aizkolari ariko dira.

Datozen asteetako kanporaketetan lehia jarraitzeko, hamaika aizkolari ariko dira lehia, bi postu lortzeko.

Tolosaldetik, Jokin Alkizalete asteasuara, Iñaki Agirre ibartarra, Jon Irazu zizurkildarra eta Eneko Otaño beizamarra ariko dira. Eurekin batera, Mikel Larrañaga, Xabier Aranberri *Elo-riaga* Angel Eraso, Iñaki Vazquez *Sakana*, Iker Vicente, Iñaki Kintana eta Jon Rodriguez ariko dira.

• [tolosaldea@hitza.info](mailto:tolosaldea@hitza.info)

# Errepublikak omentzeko jarduerak, hilaren 14rako

Eguerdiko bazkarian parte hartu nahi duen edonork, aurrez izena eman beharko du, 23 euro ordainduz

## I. Urkizu Tolosa

Errepublika omentzeko zenbait jarduera antolatu ditu duela gutxi Tolosan sortu den talde errepublikarrak. Datorren apirilaren 14ean egingo dituzte ekitaldiak.

12:00etan lore eskaintza egingo dute, iaz hilerrian jarri zuten momentuan. Antolatzaileek azaldu dutenez, lore eskaintza «frankismoaren biktima guztiak oroitze» egingo dute. 13:00etan banderak eta materiala salduko dute, eta jarraian, 14:00etan, bazkaria egingo dute Fronton jate-txean.

Interesa duten guztiak parte har dezakete bazkarian, Kutxako 2101 0067 260013003603 kontuan 23 euro sartuta, izena eta abizena adieraziz.

# Sei ospakizun, gaur, Tolosako eta Ibarako elizetan

## I. Urkizu

Gaur, Ostegun Santua ospatzeko meaz izango dira Tolosako eta Ibarako parrokiatan. 17:30ean, Santa Marian eta Amaroako elizan izango dira; 18:00etan Santa Klara elizan; 19:00etako meza Corpus Christin eta San Frantziskon egingo dute, eta Ibarako San Bartolome parrokiaren 19:30ean izango da Ostegun Santuko meza.

# «Alderdi anitzen mahaia» osatzea eskatu du TOPAK

Asuncion klinika publiko egiteko mozioak aurkezten ari da TOPA; Tolosan onartu berri dute

## Irtzea Urkizu

Tolosako Udaleko azken osoko bilkuran, onartu egin zuten Asuncion klinika eskualdeko ospitale publikoa izatea eskatzen duen TOPAren mozioa. Bilduren eta Aralarren baiezeko bozkek onartu zuten mozioa. Publikazio prozesuan «alderdi anitzen mahaia» osatzea eskatzen da mozioaren bidez.

TOPA koordinakundeak azken hilabeteotan salatu duen moduan, mozioak ere gogora ekarri zuten «2011ko azaroaz geroztik Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak Tolosalderako osasun arreta eredu berria inposatu» duela. Bide beretik, espezialitate ambulatorioa itxiz eta espezialitate guztiak Asuncion klinikaren esku utziz, «Tolosaldean, nahiz Andoainean eta Legorretan, osasun sistema publikoa kaltetua eta ahuldua» geratuko dela salatu zuten mozioaren bidez. Finean, «kalitateko osasun zerbitzua eskainiko duen eskualdeko ospitale publikoa» beharrezkotzat jo zuten, beste behin ere, koordinakundeak kideek, eskualdeak «indar eta pisu demografiko nahikoa» duela argudiatuz.

Hau guztia kontuan izanda, Asuncion klinikaren publikazioa eskatu zuten mozioko lehen puntuan, eta gainerako eskualde-



Asuncion klinika eskualdeko ospitale publiko egitea nahi du TOPAK. E. EZEIZA

## ↓ Iritziak

### Ibai Iriarte

Bildu

«Argi dago guk ezin dugula geldirik egon. Gu ahal den moduan saiatuko gara, kasu honetan mahaia eratzen, publikazioa gauzatzeko. Guk lanean jarraitu behar dugu, eskualdeko herritarrek erakutsi duten nahi horri erantzuna emateko. Politikoki ere argi daukagu, administrazio publiko indartsua nahi dugula, eta horiek zerbitzu inibertsalak eta doakoak izan behar dute. Argi daukat, mahaian parte hartuko duten eragileen oinarriko helburua: eskualdeko ospitale baten beharra. Ez dut uste batzuek hori hain argi dutenik».

### Jose Ignacio Asensio

PSE-EE

«Gu ez gaude publikazioaren aurka, baina gure ustez, orain horrelako planteamenduak egitea, aurrekontuen ikuspegitik, ez da egokia. Nire ustez, demagogia handia dago kontu honetan, eta hemen egin behar den bakarra zera da, kalitateko osasun zerbitzua bermatu. Gero, kontuan izan behar da klinikaren hirurehun langile daudela, eta gure ustez beren profesionaltasuna ezin da jokoan jarri. Mozioan, nolabaiteko salaketak ere egin zituzten, eta denok dakigu salaketak non egin behar diren».

### Inaki Irazabalbeitia

Aralar

«Arazo zehatz bat konpontzeko edo bideratzeko edozein mahai sektorial eratzten denean, ezinbestekoa da horretan interesa duten agente guztiak bertan parte hartzea. Guk hasiera-hasiari defendatu izan dugu publikazio prozesua, luzea izango da edonola ere. Azken finean, gai honetan azken hitza Eusko Jaurlaritzak du, eta alkatetako guztiak publikazioa eskatuta ere, Osasun Sailak eskatzea beharrezkoa da. Nekeza iruditzen zait Jaurlaritza berria osatu arte honetan pauso erabakiorrak ematea».

etan eskaintzen denaren mailako kalitatea bermatzea ere nahi du koordinakundeak. Beren helburuak lortze aldera, auzi honetan zerikusia izan dezaketen eragile, erakunde eta alde guztiak parte hartuko duten mahaia osatu nahi dute: «Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, langileen ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundia, eskualdeko udalak nahiz plataformako ordezkariak».

### «Neurriak bertan behera utzi»

TOPAren nahia, mahai honetan eztabaidatzen denaren bitartez, klinika publikifikatzeko epeak, zerbitzua hobetzeko eta garatzeko plana, eta langileen ordezkatezen zein erregulazioen bidea zehaztea da. Halaber, alderdi anitzeko mahai honek «publikazioa egiteko moduari buruzko akordioa» lehenbailen eskuratu behar duela nabarmendu zuten TOPAK aurkeztutako mozioak: «Bitartean, Eusko Jaurlaritzak sinatutako konbenioaren ondorioz hartzen ari diren neurri guztiak, bertan behera utz ditzatela eskatzen dugu». Azkenik, duela bi hilabete TOPAK salatu zituen «rurzurak» eta «legez kanpoko enpresa egiturak» ikertzea eskatu zuten.

TOPAKO kideek, mozioa eskualdeko udal guztietan aurkeztuko dute, proposamen berak eginenez. Koordinakundeak Maixabel Olazarrek azaldu duenez, «udalek honen aldeko jarrera azaldu zuten. Mozioan publikazioa eskatzen denez, jarrera horretatik abiatuta pausoak ematen hasi behar dute herrietan ere».

Bide honetan, mahaiaren ideia proposatu bakarrik egin dute, eta orain TOPAK alderdi eta eragile guztiekin hitz egin behar du: «Ikusiko dugu nor onartzen duen parte hartzea. Oporraldiaren ondoren hasiko gara hori lan-tzen; proposamena alderdi guztiei, sindikatuei nahiz Asuncioneko langileei egingo diegu. Mahaia nahiko irekia izango da».

# Txotxongiloen bidez arrainak ezagutzeko tailerra

Tolosako Topic zentroak, Donostiako Aquariumarekin batera antolatu du egitasmoa

## I. Urkizu

Datorren apirilaren 10etik 13ra bitarte, gaztetxoek *Bete dezagun txotxongilo zitasa!* izeneko tailerretan parte hartzeko aukera izango dute.

Lehen egunean, Donostiako Aquariumera joango dira neska-mutilak, eta bertan bizi diren zenbati espezie ezagutuko dituzte. Arduradunek azaldu dutenez,

arretaz begiratu eta zehaztasun guztiak aztertuko dizkiete animalia urtarrei, gero tailerlean makila txikiekin egindako txotxongiloen bidez, animaliak birsortze-ko.


Animaliak aztertzea txotxongiloak eraikitzeke erabiltzeaz gain, itsasoan gerta daitezkeen istorioak sortzeko abiapuntu moduan ere erabiliko dute tailerlean. Modu honetara, ikasle bakoitzak sortzen duen txotxongiloa, gainontzeko ikaslearekin erlazionatuko da.

Era berean, argi beltzaren teknika erabiliko dute. Antolatzaileen arabera, «oholtzaratzeko garraian zoragarria da teknika hau, eta Aquariumean ikusitakoak be-

zalako itsaso magikoak sortzen lagunduko digu».

### Izena aurrez eman beharra

Arrainen inguruko txotxongilo tailer honetan parte hartu nahi dutenek, aurrez eman beharko



Itsas zaldiak. HITZA

dute izena, 943 65 04 14 telefonoz zenbakira deituta.

Tailerlean parte hartu ahal izateko gutxieneko adina 8 urtekoa izango da, eta apirilaren 10, 11, 12, eta 13an, 09:00etatik 13:30era bitarte ariko dira lanean. Tartean ordu erdiko atsedenaldia izango dute neska-mutilek, eta etxetik eramane beharko dute hamaiketako.



Taileraren prezioa 40 eurokoa izango da, eta apirilaren 10ean Donostiara egingo duten bidaiako joan-etorria, nahiz Aquariumeko sarrera prezioan sartuta daude.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Iragarki laburrak

### ETXEBIZITZA

■ **Pisukide bila.** Tolosan, erdigungetik oso gertu, bi gela aukeratu dituen etxebizitza. Altzariekin hornituta dago eta eguzkitua da. Interesa duen edonork, dei dezala 665 74 63 23 telefonoz zenbakira.

# Apirila, kultur txapelketen hilabetea

Oinkari dantza taldeak Villabonako Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa antolatu du hilaren 21erako

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Pintxo lehiaketa, Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdia 2012 eta Villabonako Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatu dira Aste Santuen itzuleran, Villabonan. Horiez gain, kultur egitasmoan ikastaro, hitzaldi, antzerki eta zinema egongo dira apirilean zehar.

Aste Santuen harira, ekintza bereziak antolatu dituzte Gaztelekuan. Aste honen hasieran, hilaren 3an eta 4ean, karting irteera eta pista jolasak egin dituzte, eta hilaren 11an eta 13an, pintxo lehiaketa eta Larraitzko abentura parkera egun pasa egingo dute. Ekintza bereziak ez dauden egu-

netan, Gaztelekua asteburuko ordutegiarekin egongo da zabalik, hau da, 16:30etik 20:30era.

Hilaren 21ean, Oinkari dantza taldeak, Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrekin batera, Villabonako Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa antolatu du, B sailean. Gurea zinemaren ospatuko da jaialdia, eta sarrera doakoa izango dela azaldu dute antolatzaileek. Oinkariarekin jarraituz, hileko azken larunbatean Zarauzko Udaberrifist-en egongo dira dantza taldeko kideak, Igor Yebra eta Korrontzirekin batera emanaldia eskaintzen. *Urratsa* ikuskizuna plazaratuko dute Aritzabalalde kiroldegian, 22:00etan.

Ekitaldi berezien artean, Nafarroako konkistaren inguruko hitzaldiak azpimarratu behar dira. Hileko bi azken astearteetan, Floren Aoz eta Angel Rekalde egongo dira Mintzolan, hizlari gisa. Aritza kultur elkarteak antolatu dituen hitzaldiak 19:30ean izango dira.

## ↓ Egitaraua

### ASTE SANTUA

- **Hilak 11, asteazkena.** Pintxo lehiaketa Gaztelekuan.
- **Hilak 13, ostirala.** Egun pasa Larraitzko Abentura parkera. Izen ematea 10 eurotan.

### IKASTAROKAK

- **Emakumeentzako perkusio tailerra.** Maiatzeko ostegunetan izango da, baina izena apirillean zehar eman behar da. Horretarako, 617 98 33 60 telefonozenbakira deitu eta Anarekin hitz egin behar da. Hutsuneak betez taldeak antolatzen du ikastaroa, Satorran, eta irakaslea Silvia Palumbo izango da. Matrikula 60 euro dira.

### ZINEMA

- **Hilak 14, larunbata.** Gurea

aretoan, *Esto es la guerra* filma, 19:30ean eta 22:15ean.

- **Hilak 15, igandea.** Gurea aretoan, *Esto es la guerra* filma, 19:30ean. Haurrentzat, *Aita, zombia naiz* filma 16:30ean.
- **Hilak 16, astelehena.** Gurea aretoan, *Esto es la guerra* filma, 21:30ean.
- **Hilak 21, larunbata.** Gurea aretoan, *Intocable* filma, 22:15ean.
- **Hilak 22, igandea.** Gurea aretoan, *Intocable* filma, 19:30ean.
- **Hilak 23, astelehena.** Gurea aretoan, *Intocable* filma, 21:30ean.
- **Hilak 28, larunbata.** Gurea aretoan, *Los Idus de marzo* filma, 22:15ean.
- **Hilak 29, igandea.** Gurea aretoan, *Los Idus de marzo* filma, 19:30ean.
- **Hilak 30, astelehena.** Gurea aretoan, *Los Idus de marzo* filma, 21:30ean.

elkartea, udalaren laguntzarekin.

- **Hilak 24, asteartea.** 19:30ean Mintzolan Angel Rekalderen hitzaldia. Gaia: *1200eko konkista*. Antolatzailea Aritza kultur elkarte, udalaren laguntzarekin.

### DANTZA

- **Hilak 21, larunbata.** Villabonako Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa, B saila. Gurea aretoan, 16:30ean. Sarrera doan. Antolatzailea: Oinkari dantza taldea eta Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzara. Laguntzailea: Amasa-Villabonako Udala.

### ANTZERKIA

- **Hilak 23, astelehena.** Villabonako eta Zizurkilgo LHko ikasleentzat Dar-Dar produkzioaren *Eta Zer? Ilantzezlana*, Gurea zinemaren. Bi emanaldi egingo dituzte, 09:30ean eta 11:00etan. Villabonako eta Zizurkilgo udalek antolatu dute egitasmoa.

### MUSIKA

- **Hilak 28, larunbata.** Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdia, *Euskaraz abestu nahi dut* lelopean. Gurea aretoan izango da emanaldia, 17:30ean. Sarrerak 5 euro balio du.

### HITZALDIK

- **Hilak 17, asteartea.** Etxez etxeko laguntzaren inguruko hitzaldia, Jubilatuen etxean, 17:00etan. Antolatzailea: Amasa-Villabonako Udala eta FEPAS.
- **Hilak 17, asteartea.** 19:30ean, Mintzolan Floren Aozen hitzaldia. Gaia: *1512 galera eta ondorioa*. Antolatzailea Aritza kultur

www.euskalherriko

PLaza.com



## 30 €-ko 5 deskontu kupoi

banatuko ditugu gure sare sozialen jarraitzaileen artean.

### Zer egin behar den hauetako bat lortzeko?

1. Sartu Facebooken: [facebook.com/EuskalHerrikoPlaza](https://www.facebook.com/EuskalHerrikoPlaza)
2. Sartu Twitterren: [twitter.com/EHkoPlaza](https://twitter.com/EHkoPlaza)
3. ...eta erantzun bertan topatuko duzun galdera!

Erantzuten eta gure berri zabaltzen duzuenen artean

## banatuko ditugu deskontu kupoiak.

Saridunen izenak apirilaren 27an emango ditugu.



Facebookeko kontua:



Twitterreko kontua:



Floren Aozek Nafarroako konkistaren ondorioetaz hitz egingo du. INIGO URIZ

Amezketako Ugarte auzotik abiatu eta Bedaio Beheko eskola zaharreraino izango da ibilbidea. Errepidetik egingo da, eta laua da. 7.300 metroko luzera du joan etorria egiteak. Aralarko Balerdi mendiaren magalean kokatzen da.

# Bedaio erreka uraren erritmora

## Eneritz Maiz

**A**mezketako Ugarte auzotik abiatuko da ibilbidea. Autobus geltokian elkartu, eta parez pare etxe multzo bat ikusiko da. Errepidea gurutzatu, eta bertako seme den Joxean Tolosa pilotariaren izena daraman kalean sartuko da ibiltaria. Ugartetik hasi eta Bedaio Behekoan dagoen eskolarainoko bidea izango da. 7.300 metro hain zuzen ere.

Ibilbidea hasi eta segituan, nola ez, eskuinetara dagoen pilotalekuarekin egingo du topo. Bere ondoan, Ugarte auzoko eliza ikusiko du. Errepide ertzean dago, eta sarrerako atea deigarria du. Atzeko aldean, berriz, haurrentzako parke txiki bat dago. Errepidearen beste aldetik, berriz, erreka pasatzen da. Auzogunetik aurrera abiatuta, bide laua eta zuzena izango da. Ibiltariak, ia ibilaldia osoan zehar Bedaio erreka izango du bidelagun. Berarekin, belarrien gozamenarako uraren doina izango du.

Belardi berdeak izango ditu bi alboetara, eta urrutirago begiratu gero, basoa. Eguraldiak lagunduz gero, aurrean Balerdi mendia ikusiko da. Kilometro bat egitean, aroztegi iritsiko da. Metro batzuetan, egur usaina izango da errepidean. Era berean, baserri zaharrak eta berrituak, handiak eta txikiak ikusteko aukera dago. Baita etxebizitza berriak ere. Animaliak ere ez dira inoiz faltako errepide ertzeko zelaietan: ardiak, zaldiak, behiak, oiloak...

Errepide laua bihurgune batzuek hautsiko dute, eta erreka eskuineko aldetik ikusiko dugu. Erreka gurutzatu ahal izateko eginiko egurrezko zubi zahar bat ere bada bidean. Toki lasaia da, eta trafiko gutxi izango du ibiltariak. Bedaiotarren joan etorriak izango dira gehienak. Hiru kilo-



Amezketako Ugarte auzotik hasiko da ibilbidea. Bedaio Behekoan zegoen eskolara iritsi arte joan eta bertan buelta hartuko da. E.MAIZ

metro pasatzeko bidea egin ostean, Bedaio Beheko eskolaraino iritsiko da. Garai batean, Bedaio-ko haurrek bertan ikasten zuten. Gaur egun, ez du inongo erabilerririk errepide ertze-ertzean dagoen erakinak.

### Herri izaera duen auzoa

Atsedean hartzeko aukiekin egingo du topo ibiltariak, eta baita Bedaio auzoaren berri ematen duten informazioa puntuarekin ere. Aralarko Balerdi mendi harritsuaren magalean kokaturik dago. Herri izaera duen Tolosako auzoa da Bedaio. 1970. urtera arte, ez zen bertaraino errepiderik izan. Tolosako azaleraren heren bat osatzen du Bedaio-ko lur eremuak. Nekazaritza eta abeltzaintza izan dira lanbide nagusiak, nahiz eta egun, gutxi izan baserriak soilik bizi direnak. 1544. urtean, Bedaio Berastegiko jaunaren feudoa izatetik, Tolosako auzo izatera pasa zen.

Eskola zaharrera iritsi aurretik, ordea, errotatik pasako da ibilbidea. Urteetan, bertan xehe- to dirra artoa eta garia. Gaur egun, berrituta, martxan dago errota.

Ibilbidean, berriz Ugarterako bidea hartuko da, baina nahi izanez gero, Bedaio Goikora ere joan daiteke. Errepideari jarraituz, ia lau kilometro izango dira. Bideak laua izateari utzi eta goranzko jora hartuko du maldak handituz. Bestela, Bedaio Beheko iritsita, erreka gurutzatzeko zubi bat ere izango da, eta bertatik pasata naturgunetik joan daitekeen bidea ere eskaintzen du. Goran, frontoia eta haurrentzako parkea daude. Baita jatetxea ere. Lasaitasunaren bila joan nahi duenarentzat egokia da.

o [alegialdea@hitza.info](mailto:alegialdea@hitza.info)



Bedaio erreka irudi politak ateratzeko aukera ematen du. E.MAIZ



FATXU JAGOBA AZPIROTZ MANTEROLA



### DATUAK

- **Luzera.** 7.300 metro.
- **Ezaugarriak.** Joan-etorria.
- **Hurbilketa.** Autoz edo autobusez gerturatu daiteke Amezketako Ugarte auzora. Trenez Tolosan edo Alegian jaitsi, eta autobusa hartu daiteke.
- **Hasiera-bukaera.** Ugarte auzoko autobus geltokia.
- **Zailtasun maila.** Bidea erraza eta ia laua da.
- **Azalpenak.** Landa eremuaz gozatzeko aukera ematen du.
- **Interesguneak.** Naturgunea. Ugarterako elizaren atea.



Eskola etxea eta eskola zaharra ikusiko dira ibilbidearen amaieran. E.MAIZ



Garbiñe Granado, Eider Epelde, Aiert Beobide, Eli Nosellas, Ainhoa Odriozola eta Joxe Mari Agirretxe, herenegun, Alurren lan berriaren aurkezpenean. I.T.

## Gaztetxoek dute protagonismoa Alurr dantza taldearen lan berrian

‘Izanak dirau, 1512’ ikuskizunean Euskal Herriko historiaren zati bat irudikatuko dute Alurr dantza eskolako kideek

Apirilaren 14an estreinatuko dute Lasarten; Tolosan ere eskainiko dutela iragarri dute

**Iñigo Terradillos** Ibarra

*Sua* (2008) eta *Oinazez* (2010) ikuskizunak taularatu ostean, lan berriarekin dator Ibarrako Alurr dantza taldea. *Izanak dirau, 1512* izenburua jarri dioten lanean, dantza eskolako gaztetxoek Euskal Herriaren historiaren zati bat dantzaren bidez bizitzeko aukera eman nahi izan diete. Alurreko arduradunek herenegun eginiko aurkezpenan nabarmendu beza-la, «dantza taldearen beste aurpe-

gi bat da eskola, etorkizuna ziurtatzen duena, eta horregatik, etorkizuneko dantzariei gure historiari eta tradizioei begirada zuzentzeko aukera eman nahi izan diegu, ez dezaten memoria gal». Lasarten izango da ikuskizunaren estreinaldia, apirilaren 14an, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean.

*Izanak dirau, 1512* ikuskizunaren neska gazte bat da protagonista. Nafarroako historiari ari den liburu zahar bat aurkituko du, eta

hura irakurtzen hasiko da. Liburua irakurtzen ari delarik, bere buruan irudikatzen duena da Ibarrako taldeak gainera eramango duena. «Dantzaren bidez, Nafarroako gizarte, errituak kondairak, tradizioak, festak, bizitzeko modua... irudikatu nahi izan ditugu», azaldu du Aiert Beobide ikuskizun berriko zuzendaria eta Alurr dantza taldeko ko-reafoa. Horretarako, dantza tradizionalak erabili dituzte, dantza tradizionalen moldaketak egin dituzte, eta bereziki prestatu dituzte dantza batzuk. «Azken hauetan, Nafarroara etorritako gizarte desberdinak, erromatarak edota gaztelarrak kasu, irudikatu ditugu jantzien laguntzarakin».

Alurr dantza taldeko eskolako dantzariak dira lan berrian eszenatokia igoko direnak. «30 ikas-

lez osaturiko taldea izan da ikasurte hasieratik buru-belarri lanean aritu dena, eta emaitza ikuste hutsa saria da», adierazi du Beobidek.

### Gazteenei begira

«Proiektuz bete» eta «ilusioz eta gogoz lan egiten duen taldea» da Alurr, bertako Eli Nosellas arduradunaren arabera. Ikuskizun berriko «beste zerbait» bilatzen zutela dio, «gure historiarekin lotuta dagoen zerbait, eta Alurreko gazteenen parte hartzearekin eta gazteei zuzendua izango zena». Hala, Joxe Mari Agirretxekin jarri ziren harremanetan, buruan zituzten ideiak gauzatzen laguntzeko. «Aurten 500 urte betetzen direla Gaztela-Aragoiko tropek Nafarroako erresuma konkistatu zutenetik aintzat hartuta, Nafarroarekin, Euskal Herriarekin

eta euskararekin loturiko ikuskizuna egitea proposatu zigun», adierazi du Nosellasek.

### «Bukaera da politena»

Joxe Mari Agirretxek, bere aldetik, Alurr eta Lasarten abian duten ekimena parekatzen ditu, «ezaugarri eta helburu antzekoak dituztelako». «Azken urteetan euskaraz bizitzeko esparruak sortzen ari gara; gure helburuak pertsonen nortasuna eta ibilbidea osatzea, taldeko lana eta herrian bertan egitea dira», dio Agirretxek. Kultur arloko ekimen ugari bultzatu dituzte, eta urte urte sendotzen joan dela azaldu du. «Alurren ere urte asko daramatzate herrian lanean haurrekin, gazteekin eta helduekin, Ibarrari kolorea ematen».

Tolosako Leidorren Alurrek eginiko aurrestreinaldia asko gustatu zitzaion Agirretxeri: «Oso polita izan zen. Niri politena bukaera iruditu zitzaidan, gure historiari izango duen bukaera bezala, ederra baita, euskararekin, pertsoekin eta taldearekin lotura du, eta baita askatasunarekin ere».

*Izanak dirau, 1512* osatzeko Nafarroalde elkartearen laguntza ere izan dute, batez ere, historia-aren alorrari dagokionez. Bestalde, jantziak Ramon Garcia, Garbiñe Granadok eta Alurreko kideek egin dituzte, eta Lorea Lopezek jarri dio ahotsa emanaldiari.

### Datozen emanaldiak

Lasarteko lehen saioaren ostean, herriz herri ariko dira ibartarrak euren proiektu berria erakusten. Dagoeneko hainbat herritan zehaztu dituzte ikuskizuna eskaintzeko egunak. Hain zuzen ere, Baigorri, Zizurkilen, Pasai Donibanen eta Tolosan.

Lasarten apirilaren 14an eskainiko duten emanaldirako sarre-ak eskuratzeko, Internet bidez egin ahalko da, [www.barrabarra.eu/events/buy/67](http://www.barrabarra.eu/events/buy/67) helbidean sartuta.

• [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

## Ibarrako merkataritza eta ostalaritza aztertuko dute

Apirilaren 16tik aurrera, inkestak egingo dituzte ahuleziak eta bertuteak identifikatzeko helburuarekin

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Ibarrako merkataritza eta ostalaritza sustatzeko helburuarekin, azterlan hau martxan Ibarrako Udalak, Ibarrako merkataritza elkarteak eta Tolosaldea Garatzenek elkarlanean. Hiru hilabete zehar, herriko merkataritzaren egoera ezagu-

tzeko inkestak egingo dituzte merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu profesionalen artean eta kontsumitzaileen artean.

Apirilaren 16an hasiko da Ikei enpresa inkestak eginen. 40 inkesta egingo dituzte merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu profesionalen artean. Kontsumitzaileenak, berriz, telefonoz egingo dituzte, Ibarra, Tolosa eta inguruko beste herrietako bizilagunei deituta.

Ibarrako Udalak inkestetan parte hartzeko gonbita eginen die herrietarrei, «guztien iritziak biltzea oso garrantzitsua eta aberatsa izango baita, gure herriko

merkataritza eta ostalaritza bultzada emateko». Azterlan hau burututa, Ibarrak dituen ahuleziak eta alde positiboak identifikatu nahi dituzte. «Modu horretan, bertuteetan sakondu ahalko dugu, eta ahuleziei aurre nola egin ikasiko dugu», azaldu du Agustín Aduriz Tolosaldeko merkataritza dinamizatzaileak.

Antxon Urrestarazuk, Ibarrako merkatarien elkarteko lehen-dakariak, bere aldetik, Ibarrako Udalaren «goxotasuna eta laguntza» eskertu ditu, eta azterlan hau «tresna baliagarria» izan daitekeela uste duela adierazi du.

• [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)



Atzo aurkeztu zuten ekimena Ibarrako arropa denda batean. I.T.

# Aranburu eta Amonarriz, Euskal Herriko txapeldun

Danok Danena taldeko pultsulariak Euskal Herriko eta Espainiako txapelketetan lehiatu dira

## Erredakzioa

Danok Danena Halterofilia taldeko kideak Euskal Herriko Teknika Txapelketan parte hartu dute Iruñean.

2001ean jaiotako alebinetan, Jokin Aranburuk, Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolakoak, lehen postua lortu zuen. 2002. urtekoen mailan, Asteasuko Pello Errota Ikastetxeko Xabier Amonarrizek eskuratu zuen urrezko domina. Bi pultsulari hauek apirilaren 21ean ospatuko den Espai-



Danok Danenako Asier Gallego hirugarren izan zen Espainiakoan. HITZA

niako Teknika Txapelketan parte hartuko dute.

Danena taldeko kideak, Espainiako Junior Txapelketan ere lehiatu dira, A Coruñan. 56 kiloko kategorian, Kellyam Quintanak 6. postua lortu zuen. 62 kilotan,

Asier Gallego hirugarren gelditu zen. 77koan, Joseba Arrate zortzigarren izan zen. Taldeko ardura-dunek Asier Gallegoren lorpena azpimarratu nahi izan zuten, 20 urteko pultsulariekin lehiatu baitzen, 15 besterik ez dituenean.

# KZ Gunea itxita egongo da Aste Santuko oporretan

Zizurkilgo plazako udal bulegoetatik pasa beharra dago izen abizenak euskal grafiara aldatu nahi dituenak

## A. Imaz Zizurkil

Zizurkilgo KZ Guneak atek itxita edukiko ditu Aste Santuko Oporrak irauten duten bitartean, hau da, hilaren 9ra bitartean. Bestalde, hilabete honetako tutoritzateguna 19an, ostegunean, izango da, 09:00etatik 13:00etara.

Udaletik hilabete honetarako zabalduko deialdiekin jarraituz, izen abizenak euskal grafiara

aldatzeko aukera zabalik dagoela jakinarazi dute. Horretarako, Aurrera plazako udal bulegoetara joan behar da, «bertan azkar eta modu errazean» bideratzen baitute aldaketa. Eraman beharreko dokumentuak ondorengoak dira: errolda agiria; jaiotza agiri literala, dagokion erregistroan edo bake epaitegian eskatzen dena; nortasun agiria; fotokopia eta familia liburua, ezkondua edo guraso izanez gero.

Informazio gehiago nahi duenak euskara zerbitzuetaara jo dezake. 943 69 24 95 telefono zenbakira deitzeko aukera ere jarri du Zizurkilgo Udalak, edo [bulegoa@zizurkil.com](mailto:bulegoa@zizurkil.com) helbide elektronikora idaztekoa.

## Irudia ◊ Amasa-Villabona



## «LAN ISTRIPU GEHIAGORIK EZ!»

LAB, ELA, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek elkarretaratzera deitu zuten atzo Borobil lantegiaren aurrean. Astelehenean Tolosako langile bat zendu zen bertan, makinak harrapatuta.

60 bat lagun elkartu ziren atzoko mobilizazioan, tartean Borobileko hainbat langile. *Lan istripu gehiagorik ez, prekarietatea hiltzailea* jartzen zuten pankartaren atzean elkartu ziren guztiak. A.I.

## ‘Okerreko trenera igo’ denaren gutun bila

Aiztondoko V. Gutunehi Lehiaketan lanak aurkezteko epea maiatzaren 8an amaituko da

## A. Imaz

Aiztondo V. Gutunehi Lehiaketa abian da, eta maiatzaren 8a baino lehen bidali beharko dira lanak ondorengo helbide honetara: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoak/ Muñoa kalea, 36 behea/20.159 Zizurkil (Gipuzkoa).

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, *Okerreko trenera igo* gaiaren inguruan idatzi beharko dute, hori baita gaia.

Sei urtetik gorakoentzat antolatuko dute lehiaketa. Lan bakoitza-

ren hiru kopia aurkeztu behar dira. Ondoren, kartazal itxi batean, egilearen datuak jartzea eskatu dute. Kartazalaren kanpoaldean, idazlanaren izenburua edo izengoitia eta zein kategoriari dagokion idatzi behar da.

6-8 urtekoak A mailan lehiatuko dira; 9-11koak B mailan; 12-16koak C mailan eta 17tik gorakoak D mailan.

## Irabazleak, ekainaren 22an

Sari banaketa ekitaldia ekainaren 22an izango da, Zizurkilgo Iriarte Etxean, 18:00etan hasiko den ekitaldian. Irabazleen gutunak bertan irakurriko dira publikoaren aurrean.

Gutun sarituak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatearen esku geldituko dira, egoki iritziz gero, argitaratzeko.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### DEIALDIK

- **Tolosa.** Tolosako Udalak ekitaldiak antolatu ditu apirilaren 7rako, larunbata. 12:00etatik aurrera, karakolen pintxoak banatuko dituzte, Zerkausian. 12:30ean, karakolen lasterketa, Trianguloan. 17:30ean, idi proba Pablo Gorosabel kalean.
- **Tolosa.** Foro Errepublikanoak ekitaldiak antolatu ditu hilaren 14rako, besteak beste, bazkaria Fronton jatetxean. Parte hartze-ko Kutzako 2101 0067 26 0013003603 kontuan 23 euro sartu, eta izena eta abizena adierazi behar da. Azken eguna hilaren 11 da.
- **Tolosa.** Topic zentroak Donostiako Aquariumarekin batera tailerra diseinatu du apirilaren 10, 11, 12, eta 13rako. Zortzi urtetik aurrerako haurrentzat da tailerra, eta 09:00etatik 13:30era izango da. Salneurria 40 eurokoa da. Izena emateko 943 65 04 14 telefono zenbakira deitu behar da.
- **Tolosaldea.** Iruñean egingo duten Aberri Egunerako autobusez joateko aukera jarri du Bai Euskal Herriari ekimenak. Zerrendak Tolosako Rakun, Anoeta-ko Itzulin, Villabonako Iratzarren, Ibarrako Subegin, Zizurkil-eko Zentroan eta Adunako Uztartzan jarri dituzte. Izena emateko azken eguna gaur da.

### ANTZERKIA

- **Ibarra.** Begira Teatroa taldearen eskutik, *Super Txarko: Zirkuaren magoa?* antzezlan, kultur etxean. Apirilaren 10ean, 17:00etan, izango da.

### ZINEMA

- **Tolosa.** Apirilak 5, osteguna, 17:00etan, *Viaje al centro de la tierra 2* (haur zinema); 19:30ean, *Mi semana con Marilyn*; 22:30ean, *Young adult*.
- Apirilak 6, ostirala, 17:00etan, *Viaje al centro de la tierra 2* (haur zinema); 19:30ean, *Moneyball*; 22:30ean, *Mi semana con Marilyn*.
- Apirilak 7, larunbata, 19:30ean, *Young adult*; 22:30ean, *Moneyball*.
- Apirilak 8, igandea, 17:00etan, *Kerity, la casa de los cuentos* (haur zinema); 19:30ean, *Young adult*.
- Apirilak 10, asteartea, 20:30ean, *Mi semana con Marilyn* (ikuslearen eguna).
- **Berastegi.** Haurrentzako filma euskaraz, aparkaleku azpiko lokalean. Apirilaren 10ean, 16:00etan. Sei urtetik azpiko haurrek heldu batek lagunduta joateko eskatu dute.

## Irudia Tolosa



## IPUINAK ENTZUN, GERO KONTATZEKO

Haur liburategian Miriam Mendoza ipuin kontalariaren beste saio bat izan zuten, atzo. Haurrei ez zik, gurasoei ere zuzentzen zaie ipuin kontaketa. Izan ere, liburategian dauden zenbait liburu erabiltzen ditu Mendozak ipuinak kontatzeko. Hala, gero gurasoek ipuin horiek etxean nola kontatu ditzaketen jasotzen dute. Bestetik, liburategiaren horma batean orain arteko saioetan kontatu diren ipuin guztien zerrenda jarrita dago. i&L

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

### BIHAR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

### ETZI

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo ka-

lea, 20. 943 67 60 13.

- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

### APIRILAK 8, IGANDEA

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

### APIRILAK 9, ASTELEHENA

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

- **Iruztun.** Mutilloa, A. M. San Martin, 5. 112.

### APIRILAK 10, ASTEARTEA

- **Tolosa.** Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Iruztun.** Mutilloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

## Agurrak

AGURRAK  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●●● agurrak

Bertako informazioari, bertako produktuak

**EKAIN**

Egin HITZAren harpidedun  
apirilaren 3tik ekainaren 1era,  
eta jaso

**Ekain sagardoa  
6 botilako kaxa bana**



Harpidedun  
egiten diren  
guztien artean

Lekeitioko Metrokua hotelean,  
**bi personarentzako  
asteburu baterako egonaldia  
ZOZKATUKO DUGU**

Harremanetarako:  
902-82 02 01 • [harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)